

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2013ko ekainaren 5a. IX. urtea. 2.605. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



HITZA

Bernardo Atxaga Idazlea

«Urteekin gehien aldatzen dena norberaren begirada da»

Asteasuarrak 'Obabakoak' eleberria argitaratu zuela 25 urte beteko dira; unibertso hura berriz bisitatuko du 'Nevadako egunak' nobelan **4-5**

Ibai Iriarte: «Parte hartzea bultzatzen saiatu gara egitasmo guztietan»

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAko irakurleen galderak erantzun ditu, Tolosako alkateak **2**

Maxurrenea Herrintzat plataformak deituta, manifestazioa

Larunbatean 12:00etan hasiko da Leitzako plazatik; herritar guztiei parte hartzeko deia egin diete **7**

Indarkeria kasua salatzeko, gaur, elkarretaratzea **7**

Estitxu Garai

Komunikazio eta marketin aditua

«Euskarak gertutasuna sortzen du komertzioetan»

Hitzaldia emango du, gaur, Tolosako kultur etxean

Elkarriketa **6**

Goio Jimenez preso ohia libre geratu da **7**



TOLOSALDEA

LANBIDE HEZIKETA
INSTITUTUA

Eleanitza



ziklo guztiak
euskaraz

AURREMATRIKULAK Maiatzaren 27tik Ekainaren 7ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mekanizazioa
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Informatika
- Automatizazio eta Robotika industrialak
- Administrazio eta Finantzak
- Metal eraikuntzak

Ibai Iriarte: «Lehen unetik gardenak izaten saiatu gara»

Herritarren galderak erantzun ditu Tolosako alkateak, legegaldaren lehen bi urteen balantzea egiterakoan

Asier Imaz Tolosa

Ibai Iriartek bi urte beteko ditu ekainaren 11n Tolosako alkate moduan. Lau urteko legegaldaren erdian, orain arte egindakoaren inguruko balantzea egin du *tolosaldea.hitza.info* webgunean. Herritarrek bidalitako galderak ere zuzenean erantzun ditu Iriartek.

Bi urte hauen inguruan hitz egiterako unean, Bilduko hautesiak «argi-ilunak» aipatu ditu. Udaletxera ilegalizazio prozesu baten ondoren iritsi zirela gogoratu du Ibai Iriartek, eta «atearen beste aldean zer zegoen ongi ez zekitela» onartu du: «Lehen unetik gardenak izaten saiatu gara, eta hori izan da gure oinarritzko printzipioetako bat». Gizarte politikei dagokionez, murrizketak ez aplikatzen saiatu direla dio Tolosako alkateak, eta hori behintzat lortu dutela aldarrikatu du: «Aurrekontuaren kontrola bermatu dugu, eta zentzu horretan, jar-duera ekonomikoa benetan polita

■ **Bideoa.** Ibai Iriarte Tolosako alkateari egindako zuzeneko elkarrizketa *tolosaldea.hitza.info* webgunean dago.



egin dugula uste dugu. Etxean egiten dugun bezala, duguna gatzatzen saiatu gara, eta ez ez dugu; udalak dituen sarreraren arabera gastuak egin ditugu, eta horrek egonkortasun ekonomikoa ekarri digu». Martxan jarri dituzten egitasmo guztietan, parte hartzea bultzatzen saiatu direla azaldu du Iriartek, eta horren adibide gisa, Larramendi auzoa, San Esteban, Hondakinen Mahaia, eta batzorde irekiak aipatu ditu, besteak beste.

Gabezien artean, komunikazioa aipatu du Tolosako alkateak: «Informazio ugari sortzen dugu egunero, eta lehen urtean ez genuen asmatu hori ongi bideratzen». Zeren plazaren afera eta San Joanetako elizkizuna aipatu ditu Iriartek horren adibide bezala. Aralarrekin osatu duten udal gobernuaren inguruan, aldiz, Euskal Herrian ondoren ikusi denaren aurrerapena izan dela dio Tolosako alkateak, hau da, EH-Bildu-ren aurrekaria.

Kritikei erantzuna

EAJ eta PSE-EE alderdien kritiken aurrean, alderdikeriak albo batera utzi eta Tolosa guztien artean sortu behar dela uste du Ibai Iriartek, «alderdien interesen gainetik herritarrenak jarri behar baitira». Aipatu behar da, oposizioan dauden bi alderdi horiek gogor kritikatu dutela udalaren bi urteko ibilbidea. EAJk «gestio falta» salatu du, eta gauzak inertziaz egitea leporatu die Bildu eta Aralarreko kideei. PSE-EE alderdiak, aldiz, bi urte hauetan «oso gaizki» aritu izana leporatu die udal ordezkari; ekonomikoki aurreztu dela onartuz, baina inbertsiorik ez dela egin salatuz. Kritika eta herritarren galdera guztien erantzuna, *www.tolosaldea.hitza.info* webgunean.



Ibai Iriarte Tolosako alkateak 'tolosaldea.hitza.info' webguneari zuzeneko elkarrizketa eskaini zion, atzo. i.t.

↓ Ibai Iriartek 'tolosaldea.hitza.info' webgunean esanak

Herri kontsulta

«Parte hartzea sustatzen denean, helburua ez da helmuga, bidea da, hau da, bidean subjetoa sortzen da. Larramendi auzoan egin zen prozesuaren bidez, auzo dinamika, auzo izaera bat sortu da. Hala eta guztiz ere, ez dut uste parte hartze prozesu guztiek erreferendumei batean bukatu behar dutenik, San Esteban auzoan ikusten ari den bezala; kontsentsuak lortzen saiatu behar da»

Hondakinak

«Hondakinen Mahaia eratu genuenean lehenengo lana formakuntza lantzea izan zen, eta bertan, alderdi politikoak, eragileak eta interesa zuen oro zegoen. Ondoren, birziklatzea bultzatzeko kanpaina desberdinak jarri ditugu martxan. Azken asteetan hiru egin ditugu, eta udazkenean beste batzuk jarriko ditugu abian auzoz auzo. Hondakin bilketa sistemaren inguruan, Tolosan zein jarri behar dugun erabakitzeko, ikerketa bat egingo da, eta hori egingo duen enpresaren esleipena iragan astean egin zen».

«Hondakin sailkapena norberak egin beharko du bere etxean. Denok dakigu egin beharra dagoela, baina askok ez dute egiten, eta hori datuetan agertzen da; helburua administrazioak hori kontrolatzea da, hau da, sailkapena egiten den edo ez kontrolatzea».

«Alderdien arteko gerra batean sartu gara, sartu dira... nahi duzun aditza erabili. Horrek izuak eta mamuak sortu ditu, eta on-

dorioz, prozesua gehiegi luzatzen ari da. Denoi dagokigun gaitan inguruan horrela ibiltzea guztiz zentzugabekoa da; arduragabekeri handi bat da. Denok gaude birziklapenaren alde, egin dezagun bada».

«Trintxeretatik ezin dira inoiz zubiak eraiki. Zubiak eraikitzeko, trintxerak deuseztu behar ditugu».

Zakur kakak

«Ikuspegi kolektiboak landu behar ditugu, ni-aren gainetik gu-a dago, eta gu hori tolosarrak gara. Isun batzuk jarri ditugu, baina oso zaila da udaltzaientz momentu horretan harra-patzea. Argi dugu, ordea, harra-patuz gero isunak jartzan jarraituko dugu. Gune berdeetan ez ezik, kalean ere zakurkak agertzen dira, eta gehiengotik, gainera, beti leku berdinetan izaten da».

«Txakurrek txipa eramaten dute, eta jabee gutun bat bidaliko diegu; bandoa ere jarriko da arduratsu jokatzeko eskatuz. Norberaren ikuspegiaren gainetik orokorra izan behar dugu, eta gizaritean badugu gabezia hori».

Udalaren zorra

«Zuloari buelta ematea bada-gu, baina aurrekontuaren eta gastuen arteko oreka bat bermatzea beharrezkoa da. Horrez gain, zorraren gaineko ordainketa plan bat burutu behar da, eta hain zuzen ere, ordaintzen ari gara. 2011tik hona sei milioi euro ordaindu ditugu, eta horri esker zorra gutxitu da. Horrek, ordea,

etorkizuneko inbertsioa hipotekatzen du».

Euskal presoak

«Pello Odriozolak adibidez 25 urte daramatza espetxean, eta pentsa, nik 30 ditut. Ez dut eza-gutzen, beste belaunaldi askok bezala. Herri honen drama da hori. Gatazka politiko honek sufrimendu handia sortu du, eta sortzen jarraitzen du. Gizarteak eta politikariok amaierara eramane behar dugu, berriro horrelakorik gerta ez dadin. Bada garaia behingoz gatazka honi buelta emateko».

Bonberenea eraikina

«Euskal kulturentzari eta Tolosako agenda kulturalari izugarritzko egurtua ematen dio Bonberenea, eta bejondaiela. Bonberenea bertan jarraitu behar duela argi dugu, eta horretan sinesten dugu. Auzotarrekin batera diseinatzen ari garen etorkizuneko San Esteban auzoan, argi ikusten dugu Bonberenea bere zatia duela; etorkizuna duela dagoen lekuan».

Langabezia

«Tolosako argazkia txarra da. Beste leku batzuetan zenbaki okerragoak daude, baina arazo handi baten aurrean gaude. 35 urtetik beherako langabezia, baina batez ere 45-etik gorakoak kezkatzen gaitu».

«Ahal genituen enplegu programak jarri ditugu martxan; merkataritzan laguntzak eman ditugu; Tolosaldea Garatzenen bidez enplegu programa egin dugu; etorkizuneko Tolosaldea lantzen gabilta...».



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ingurumen egunari lotuta hamaika ekintza antolatu dituzte hilabete osoan zehar

Ingurumenarekiko duten apustua indartu dute udalek, eta eskualdeko ibaien garbiketa lehenetsi dute

Mikel Iraola

Gaur Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatuko da, eta honi lotuta, hilabete osoan zehar Tolosaldeko udalek, Tolosaldea Garatzen laguntzarekin, ingurumena babestearen aldeko keinak ekimen antolatuta dituzte.

Aurten, bereziki, eskualdeko erreken garbiketari eman nahi izan diete garrantzia, espezie inbaditzaileak ekiditeko proiektua abian jarri baitu Tolosaldea Garatzenek. Modu horretan, landare horiek kentzeaz gain, ibaien ertzeetan pilatu diren gainontzeko gatzak, tresnak edota plastikoa kentzeari ekingo diete. Beraz, gaurtik aurrera, horretan arituko dira Adunan. Hilaren 8an Anoetan eta Iruran izango dira, eta 15ean Alegran.

Ikasgelatik plazara

Horrez gain, gaur beste bi ekintza egingo dira. Alde batetik, Ibarrran, Uzturpe ikastolako gazte-
txoak herriko zuhaitzei izenak jartzen ibiliko dira. Bestetik, Anoeta, Irura, Zizurkil eta Amasa-Villabonako ikastetxeetako gazteek *Ikasgelatik plazara* ekimenaren bigarren saioa burutuko dute, Villabonan bertan, Tolosaldeko Ingurumen Eskolaren eskutik.

Agenda 21 programaren barnean, biodibertsitatearen gaia jorratu dute aurtengo ikasturtean bigarren urtez, inguruak ezagutu eta errespetuz gozatzen ikasiz. Ikasitako hori herriarrei helarazteko, 09:30ean elkartuko dira taldekako lanak egiteko. Ondoren, erakusketak ikusteko aukera izango dute, eta amaitzeko 11:00etan, komunikatu bat irakurriko dute.

Hilabete zehar ere bai

Gaurko Ingurumen Eguna gain, hilabete osoan zehar jarduerak gehiago antolatu dituzte. Esaterako, ostiralean, Tolosaldeko Arkaute parkean konpostaiaren festa ospatuko da 17:30etatik aurrera. Egun berean, Villabonan, bigarren eskuloko azoka egingo dute.

Ekainaren 23an, Fraisoroko historia eta inguruak izeneko mendi ibilbidea egingo dute. 08:00etan abiatuko dira Pello Mari Otaño plazatik, eta Uliazpi, Matia eta Nekazal eskola bisitatuko dituzte. Azken honetan bazkalduko dute denek batera. Norberak bere janaria eraman beharko du, eta kafea udalak eramango du.

Amaitzeko, ekainaren 28, 29 eta 30ean, turismo aktibo jasangarriari buruzko topaketak ospatuko dira Larraitzen eta Alkizan. Gazteei zuzendutako ibilbideak, eskalada txapelketak eta konpostatuak izango dira larunbatean. Igandean, berriz, familiei zuzendutako festa izango da. Ibilaldia, ekimen eta produktu jasangarrien azokaz gozatzeko aukera egingo da.

↓ Egitaraua

ASTE BERDEA

■ **Ekainak 5, Villabona.** Ikasgelatik Plazara ekimeneko bigarren saioa Villabonan: Anoeta, Irura, Zizurkil eta Villabonako gazte-
txoak hartuko dute parte goiz osoan zehar.

■ **Ekainak 5, Aduna.** Erreka-
ren garbiketa 11:30ean, herri eskolatik abiatuta.

■ **Ekainak 5, Ibarra.** Uzturpe ikastolako neska-mutilek herriko zuhaitzei izenak jarriko dizkiete.

■ **Ekainak 7, Tolosa.** Konpost-
taia festa ospatuko da Arkaute-ko parkean, 17:30ean. Umeen-
tzako jolasak eta lunch-a izango dira.

■ **Ekainak 7, Villabona.** Bigarren eskuloko azoka.

■ **Ekainak 8, Anoeta eta Irura.** Ibairen garbiketa, 10:00etan, Urgardenekin batera.

■ **Ekainak 12, Villabona.** Eskolako Agenda 21eko ordezkari-
ekin zakur kaken aurkako kanpaina.

■ **Ekainak 15, Alegia.** Ibairen garbiketa 10:00etan Urgard-
nekin batera.

■ **Ekainak 23, Zizurkil.** *Fraisoroko historia eta inguruak* mendi ibilbidea goizeko zortzietan, Pello Mari Otaño plazatik hasita. Uliazpi, Matia eta 12:30ean, Nekazal eskola bisitatuko dira. Ondoren bazkaria: janaria norberaren esku; kafea, udalak.

■ **Ekainak 28, 29 eta 30.** Turismo Aktibo Jasangarriari buruzko topaketak Larraitzen eta Alkizan.

Satorrak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Ziurrenik, gure baserrietan gorrotatuena izan den ugaztuna da satorra. Seguru nago zuetarik askok ikusi duzuela noizbait zuen etxekoren bat satorraren zain aitzurra lepoan hartuta duela. Gero diote, Tibe-
ten bizi diren monje burusoil horiek pazientzia handia dutela. Etor daitezela satorrak harrapat-
zera!

Satorra (Talpa europaea) itxura batean behintzat ez da arrisku-
tsua, hamabost bat zentimetroko animaliatxo luzanga mutur luze bat baino ez da. Normalean, ezaugarri hauek dituzten ugaztunak, larreetan edo basoan zehar korrika ikusten ditugu, baina hor dago satorraren berezitasuna, hau ez baita lur gainean bizi, lurpean bizi da, erabat.

Gutxi dira munduan erabat lurpean bizi diren ugaztunak. Izan ere, lurpean bizitzeko, zenbait ezaugarri berezi behar dira. Batetik, parean dagoen lurra kentzeko herra-
mentarien bat beharrezkoa da. Satorrek atzapar bikainak dituzte horretarako, atza-
la benetan sendo eta luzeekin. Gainera, beraien atzaparrak, beste inongo animaliak ez bezala, kanporantz okertuak daude, lurra paretik kentzeko eginak.

Gorputza ere xebe-
ra dute satorrek, oso ile fina eta malgu dute, egindako zuloetan barrena erraz pasatzeko. Imajina ezazu zuloetan trabatuta geratuko bali-
ria, a ze etorkizuna.

Begiak badituzte, txikiak eta azal leun batez estaliak. Esan genezake ia itsuak direla, baina egia esan, zertarako begiak, beti ilun dagoen lurpean bizitzeko? Bizidun-
en munduan, alferrikako zer-
bait badago, desagertu egiten da. Horregatik, ez sinistu, gizakiak soilik garunaren %10a erabiltzen duela esaten dizuetenei. Beste %90a zer dugu bada, buru hezu-
rra betetzeko?

Baina, begi faltan beste zerba-
it izan behar soberan, eta satorrek ukimena dute soberan. Oso azal sentikorra dute sudur aldean, ile-
txo ere sentikorragez beteta.

Elikadurari begiratu-
z, satorrak zizare-
jale amorratuak dira. Zizare bat harrapatzen dutenean, atzaparrek barrua husten omen die, zizarearen hesteetako lur hondarrak kentzeko eta hone-
la lurrez errebozatu gabeko hara-
gia jateko. Baina, zizareez gain, atsegin ditu ere barraskiloak, lur-
peko landareak, sagutxoak eta in-
tsektuak.

Hala ere, zizareekiko zaletasu-
nagatik, zizareei atsegin zaien lur-
rretan egon ohi da, beraz, oso zai-
la da satorra leku areatsu eta har-
ritsuetan topatzea. Nahia-
go izaten ditu, materia organikoz be-
tetako lur leun eta gozoak... adibi-
dez, baratzeak.

Lur hauetan egiten dituzte bere etxetxoak lurpeko galeria sare konplexu batekin, non 100 zenti-
metrorainoko luzerak eduki di-
tzaketen. Oso arraroa da satorra lurpetik kanpo ikustea, soilik le-
hortek direnean eta sator gazte-
ak beste leku batzuen bila joaten direnean irteten dira lurpeko se-
gurtasunetik.

Sator amak, umatzeko garaian 150 zentimetroko diametro eta 50 zentimetro inguruko altuera duen gune bat eraikitzen du lur-
pean. Bertan hosto lehorrezko ohe bat egiten du eta han uma-
tzen ditu ondorengoak. Kumetxo-
ek hilabete inguruan amaren es-
nea edaten dute. Bai, satorrak zu eta ni bezala ugaztunak direla ez a-
haztu. Hauek sei hilabete inguru be-
tetzen dituztenean, jada hel-
duak direnez, beste eremu batzuk kolonizatzen irteten dira.

Satorrak ez dira batera lagun-
koiak. Pentsa, eme bila dabil-
tzen bi sator ar elkar topatzen dire-
nean, borroka gogorrek egiten di-
tuzte, elkar akabatzeraino iritsi ar-
teare.

Satorra apur bat ezagutu du-
gun honetan, goazen ikustera bere bizitzari buruzko xebe-
ria batzuk:

Satorrak etengabe jaten egon be-
har du. Diotenez, 24 ordutan ez ba-
du ezer jaten, hil egiten omen da... gutxi gorabehera gu bezala. Egunean zehar, bere pisuaren er-
dia baino gehiago jan behar du ja-
narritan, gosez hil nahi ez bada.

Nire irakurleen artean baratze za-
leak badaude, honezkero jasan-
a izango dute, seguru, satorren erasoren bate. Satorrak ez ditu ba-
razki asko jaten, baina satorrak egiten dituen galerietan zehar, be-
netan barazkiak atsegin dituzten ugaz-
tun txikiak ibili ohi dira, be-
raz, satorra berak jaten dituen ba-
razkiak baino kaltegarriagoak dira, beraien galerietan barrena dabil-
tzen animaliatxoak.

Bestalde, sator bat harrapatzen du-
zuenen, ez du ezertarako ba-
lio bere gorpua makil batean zin-
tzilika uzteak, honek ez ditu beste satorrak izutzen. Satorra lurpetik da-
bil, lur azalekoa bost axola be-
rari!

Satorrari ez dakit, baina neuri asko axola zaizkit zuen irtiti da-
dudak, beraz ez lotsatu eta idatzi *bioaniztasunetik@hotmail.com* eta noski, jarraitu zuen konpost-
gailutik xomorroak biltzen eta alko-
holetan gordetzen. Ea horre-
la, guztion artean, munduko le-
hen konpostagailuetako fauna-
ren katalogoa eraikitzen dauka-
gun!

Irudia ▶ Amasa-Villabona



BEHAR ZANAK 67 URTE

Behar Zana elkarteak 67. urteurrena ospatu du asteburuan. Ositrale-
an txupinazioan, Txomin Castro zenari omenaldia egin zioten, Incan-
sables Txarangak alaituta. Ondoren, sagardo eta pintxo dastaketa izan zen. Larunbatean, berriz, pilota jaialdia, danborrada, afaria eta dantzaldia egin zituzten. Igandean amaitu zituzten ospakizunak erre-
bote partidak jokatzu. Irudian, ostiraleko sagardo dastaketa. M. IRAOLA

→ Laburrak

Festetako balorazio bilera, bihar arratsaldean

ANOETA ▶ Aurtengo herriko fes-
tak bukatuta, balorazio bilera bat egingo dute bihar Anoetan. Batzarra 18:30ean izango da udaletxean, eta jai batzordeak herriko talde eta herriar orori parte hartzeko deia egin die.

Mozorro eguneko spot-a grabatuko dute

TOLOSA ▶ Ekainaren 29an Tolosaldean ospatuko den mo-
zorro harira, spot iragarle bat grabatuko dute bihar arratsal-
deko seietan Tolosaldeko zez-
en plazan. Antolatzaileek, mo-
zorroekin bertaratzeko deia egin diete tolosar guztiei.

Estitxu Garai • **Komunikazio eta marketin aditua**

Tolosako Euskararen Mahaiak antolatuta, euskarak merkataritzan duen garrantzia azalduko du Estitxu Garaik, gaur, Tolosako kultur etxean, 20:15ean eskainiko duen saioan.

«Publizitatean hizkuntzak izan behar duen funtzioa eragitea da, eta ez egotea»

Itzea Urkizu

Tresna eta aukera merkataritzan hitzaldia eskainiko du gaur Estitxu Garaik (Gordexola, Bizkaia), bereziki merkatariei begira, «baina edonorentzat». Komunikazioan eta marketinean aditua da bera, eta besteak beste, euskara edozein esparrutan komunikatzeko tresna izateko, oraindik lan egin behar dela dio.

Euskara eta merkataritza uztartuko dituzu biharko hitzaldian. Zein ildo jarraituko du saioak?

Entzuleak, besteak beste, merkatariaik izango direnez, euskara negozioentzat balio erantsi bat izan daitekeela erakusten saiatuko naiz. Horrela, euskara erabiltzeko hainbat motibazio azalduko ditut, ikuspuntu filologikotik, edo hizkuntza normalizaziotik haratago. Negozioaren ikuspegitik euskara tresna eraginkorra izan litekeela erakutsiko dut.

Zein dira motibazio horiek?

Bi maila bereizten ditut. Batetik, euskarak maila sinbolikoan negozio bati ematen dizkion konnotazioak izaten ditut hizpide, eta bestetik, euskarak maila erreferentzian duen balioa aipatzen dut; hau da, komunikaziorako tresna moduan. Honekin batera, merkatariek beren egunerokoan izaten dituzten zenbait komunikazio egoera proposatzen saiatuko naiz, eta hainbat gako emango dizkiet, euskara modu eraginkorrean erabiltzeko.

Bezeroek merkataritza arloko komunikazio eta hizkuntza jarretan badute zerikusirik?

Bai, noski. Hainbat ikerketaren bidez bezeroek euskara komertzioetan egotea baloratzen dutela erakusten saiatuko naiz; positibotzat hartzen dute. Finean, beste hizkuntza batek eman ezin duen gertutasuna sortzen da eus-



HITZA

kararekin, norberari bere ama hizkuntzan hitz egiten diotenean, gertukotasun hori *de facto* sortzen delako. Hau guztia oso positiboa da, bai saltzailearentzat, eta baita kontsumitzailearentzat ere; norbait denda batera joaten denean, aholkularitza nahi du, eta konfiantza garrantzitsua da.

EHUn ikerketa lanetan ari zara, euskararen eta publizitatearen arteko harremanaz. Zein da egoera?

Nire hipotesia honakoa da: gaur egun, hedabideetan ikusten dugun publizitatea ez dela, benetan, euskarazko publizitatea, baizik eta gaztelaraz sortu eta pentsatutako zerbaiten hala-moduzko kopia. Kasu batzuetan, gaztelaraz pentsatu den hori euskaraz adierazteko modu txukunak badira, baina beste batzuetan ez.

Publizitateak tresna moduan indarra galtzen du horrelakoetan?

Bai. Publizitatearen eraginkortasuna airean geratzen da, eta hori da nire ikergai nagusia. Batetik, publizitate agentzia handietan

sormen prozedura nolakoa den aztertzen dut; hau da, piezak elebidunak direnean zein pauso jarraitzen dituzten, publizitatea sortzeko. Gero, behin pieza horiek hartuta, iragarkian zein eragin duten ere aztertzen dut.

Ikerketa hau egiterakoan, beste hizkuntza minorizatu batzuek publizitatean zein estatus duten ikusi duzu?

Bai. Hizkuntzak erabiltzeko motibazioei dagokienez, Irlandan bada ikerketa bat, esaterako. Han, publizitatean irlandar gaelikoa erabiltzen dutenean, helburu sinboliko batekin erabiltzen dute gehienbat. Beraz, ez dira hainbeste kezkatzen hizkuntzan izan dezakeen eraginaz edo jostagarritasunaz; iragarki bat gaelikoz egotea hutsak, bertakotasuna ematen dio produktuari, eta zentzu horretan erabiltzen dute hizkuntza. Hango ikertzaileek ondorioztatzen dutena, beraz, zera da: horrek gaelikoaren egoera gutxietsia betikotzen duela. Gaelikoa

sinbolikoki bakarrik erabiltzen bada, azkenean, museo hizkuntza bilakatuko da.

Komunikatzeko ahalmen hori etengoluke horrek, beraz.

Bai, hizkuntza eragiteko delako, eta publizitatea, berriz, eraginkortasunaren eta pertsuasioaren mundua delako. Publizitatean hizkuntzak izan behar duen funtzioa eragitea da, eta ez egotea. Euskaraz, beraz, publizitatea egon badago, baina ez publizitate idazkeran eta publizitate eraginkortasunean.

Euskal Herria Esnea kooperatibako komunikazio arduraduna. Iaz salaketak jarri zizuten, euskara hutsean etiketatzeagatik.

Egitasmo horretako komunikazio plangintza eta markaren sorrera egin nituenean, hizkuntza kontuan hartu beharreko beste faktore bat izan zen, noski. Niretzat, Euskal Herrian produktu bat kaleratuko duen marka orok kontuan hartu beharreko irizpidea da hizkuntzarena; estrategia bat diseinatzerakoan, beraz, planifikazio linguistikoa ere egin behar da, eta produktu hori kontsumituko duten bezeroak zein hiztun taldetakoak diren pentsatzea garrantzitsua da.

Etiketek lotura zuzena dute horrek.

Bai. Guk marka hau sortu genuenean, lehenik, helarazi nahi genituen baloreak zehaztu genituen: bertako produktua, bertako esnea, bertan kontsumitzekoa. Euskara, hain zuzen, hori adierazteko oso ondo zetorkigun tresna zen, eta gainera, ez genion inongo arazorik ikusten, euskara hutsen etiketak egiteari. Azken finean, hiru produktu mota dira, supermerkatuetan ere bereizita daude, eta izan daiteke modu bat, euskara ez dakien jendeak hitz batzuk ikasteko; etiketa hori eguneroko ikusten duenari, hitz horiek ezagunak egingo zaizkio. Zentzu horretan, beraz, naturaltasun osoz hartu genuen erabakia; hau da, hausnarketa bat eginda, eta bereizgarri bat ere izan zitekeela ikusita.

Balio erantsi horretaz arizara?

Bai, izan ere, kontsumo handiko produktuetan, euskara hutsean eskaintzen zen produkturik ez zegoen. Ondoren izan genituen arazo guztiak, egia esan, ez genituen aurreikusi, eta prozedura ixteko zain gaude orain. Guk, noski, isun proposamena bertan behera geratzea espero dugu, eta hala izan behar duela uste dugu gainera, bidegabekia dela iruditzen baitaigu.

Euskara normalizatzeko bide horretan oztupo asko daude oraindik?

Azkenean, guztiz normala den zerbaiti normaltasun hori kentzen zaio, eta hori noski ez dela ona. Bestalde, askotan esaten dugu euskararen alde sekulako lana egin dela, eta egia da. Azken urteotan aurrera egin dugu nabarmen, ezagutzaren datuetan ikusten delako. Baina gero, ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen koska hori hor dago. Zergatik? Hizkuntza eragiteko erabiltzen duten publizitatearen gisako alorrek, eragin handia dute. Adibidez, esapide bat, telebistan ikasi duzulako erabiltzen baduzu, adarra jotzeko edo egoera ze-

«Bezeroek, euskara komertzioetan egotea baloratzen dutela erakutsiko dut»

«Beste hizkuntza batek eman ezin duen gertutasuna sortzen da euskararekin»

«Eskolaz kanpo ere euskara erabiltzeko, tresna erakargarria behar du izan»

hatz baterako, horrek hizkuntzaren normalizazioari mesede handia egiten dio. Zentzu horretan pauso bat emateko prest dagoen jendea trabak jartzea zentzugabea iruditzen zait.

Belaunaldi berriei begira, beraz, euskarak kontzientzia dagoen zerbaitez haratago, komunikatzeko tresna gisa helaraztea garrantzitsua da?

Bai, hori da. Kike Amonarriek, Joxerra Gartzia eta Andoni Egaña, euskararen aholku batzordeak eskatuta, euskararen kalitateari buruzko txosten bat egin zuten. Bertan, kalitatezko euskara izateko bete behar diren hiru irizpideak aipatzen dituzte: zuzentasuna da bat, jatorritasuna da bestea, eta euskara egokia da azkena. Euskara egokia, komunikazio egoera bakoitzean eragiteko balio duen euskara da; egokitasunean, nire ustez, aurrerapausoak eman behar ditugu. Zuzentasunean, nabarmen, lan asko egin da, eta euskara batua dugu edozein esparrutarako. Jatorritasunean, edo euskararen usadioei jarraitze horretan, nahiz egokitasunean, ez gaude maila berean. Gure gu-raso eta aiton-amonek, euskara errieta egiteko edo zirikatzeko erabiltzen zuten; orain, ordea, badirudi euskara asko eskolaratu dela, eta horrek in batera, lehen zuten adierazkotasun hori galdu egin duela neurri batean eta zenbait eremutan. Gazteek, eskolaz kanpoko egoeretan ere euskara erabiltzeko, hizkuntzak tresna erakargarria behar du izan, zirikatzeko, ligatzeko nahiz edozertarako.

• tolosa@hitza.info

↓ Iragarki laburrak**LAN BILA**

Etzeko lanetarako. Goizetan, etzeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Autoa badauka. Deitu 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 telefono zenbakietara.

SALGAI

Txakurkumeak. Hiru txakurkume salgai. Artzai-txakur arraza-koak dira, mestizoak. 60 euro bakoitza. Deitu 638 943226 telefono zenbakira.

Quad. Suzuki LTZ 400 markako quad-a salgai. 3.500 kilometro ditu, guztiz ekipatua dago eta berria bezala dago. Interesatuak, deitu 600 752537 telefono zenbakira.

LAN ESKAINTZA

Arraindegia. Neska euskalduna behar da arrandegi batean lan egiteko. Interesatuak, 607 594716 telefono zenbakira deitu beharko dute.

Irudia ◉ Tolosa**JIMENEZ ASKE GERATU DA**

Goio Jimenez preso ohi tolosarra atzo arratsaldean geratu zen aske, 30.000 euroko fidantza ordainduta. 19:00ak zirenean geratu zen libre, eta Navalcarneroako espetxearen atarian – irudian – Tolosatik joandako senide eta lagunak zituen zain. Tolosara 00:00ak inguruan iristekoa zela aurreikusit zuten, eta bertan euskal preso ohi tolosarrak harrera beroa izango zuen. HITZA

Bilboko emakumeen aurkako indarkeria kasua salatzeko elkarretaratzea

Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxak deituta, gaur egingo dute, Tolosako Trianguloan, 19:00etan

I. Terradillos

Emakumeen Mundu Martxako Tolosaldeko Plataformak gogor gaitzetsi du iragan igandean Bilbon izandako emakumeen aurkako indarkeria kasua. Emakume

bat larri zaurituta dago jaso zuen jipoiairen ondorioz, eta jipoitua izan zen lekuan gorpuzkiak aurkitu ditu Ertzaintzak. Bada gertakaria salatzeko elkarretaratzera deitu dute, gaur, Tolosako Trianguloan, 19:00etan.

Bilbon izandako gertakariak «emakumeen aurkako indarkeriaren alde basati» agerian utzi dutela adierazi dute: «Honen aurrean ezin gara ixilik geratu, gertatutakoa oso larria dela iruditzen baitzaigu, beraz erantzuna eman behar diogu», esan dute.

→ Laburrak**GPSari eta ibilbideei buruzko ikastaroak**

IBARRA ▶ Lokatzetan taldearen eskutik bi ikastarotan parte hartzeko aukera izango da. Lehena, GPSaren oinarriko erabilerari buruz izango da, bihar. Oinarriko funtzioen berri emango dute eta mapak erabiltzen irakatsiko dute. Bigarrenean, berriz, ibiltarien komunitatean parte hartzen irakatsiko dute. Euskaraz izango dira bi ikastaroak, Ibarra-ko kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Material bilketa Mando Liburuzaina laguntzeko

TOLOSA ▶ Tolosako Haur Liburutegian (arratsaldeetan) eta Samaniego ikastetxean (goizean) Liburu, CD eta DVDak bilduko dituzte ostirala bitarte, Kolonbian bultzatzen ari diren Mando Liburuzaina proiektua laguntzeko. Ekainaren 15ean San Joanetako azoka berezian mahaia jarriko dute bildutako materiala euro batean saltzeko, eta lortutako dirua Kolonbiako Guabas inguruko El porvenir komunitatean nekazari gunee-tan ibiltzen den liburutegi mugikorra martxan jarraitzeko erabiltzeko dute.

Manifestazioa egingo dute larunbatean, Maxurrenea Leitzari itzultzea eskatzeko

Leitzako plazan egin dute hitzordua 12:00etan; Udalak ekin dio egoitza diseinatzeko parte hartze prozesuari

Iñigo Terradillos Leiza

Leitzako plazatik abiatuta manifestazioa egingo dute larunbatean Nafarroako Gobernuari Maxurrenea eraikina herriari itzultzea eskatzeko. Maxurrenea Herrintzat plataformak deituriko mobilizazioa 12:00etan izango da.

Plataformatik manifestazioaren garrantzia azpimarratu dute, eta horregatik ahalik eta jendetsuena izatea nahi dute: «Ekainaren 27an Nafarroako Parlamentuan Maxurrenea Herrintzat herri plataformak eta Leitzako

Udalak egindako eskaera aztertu eta bozkatuko dute, eta horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu leitzarri aldarrikapen hau beste behin kalera ateratzea Nafar Gobernuari herri honen borondatea zein den adierazteko». Bada, herritar guztiak animatu dituzte larunbateko manifestazioan parte hartzera.

Maxurrenea Herrintzat plataformak, era berean, sinadurak biltzen jarraitzen du. Pasa den asteburuan Leitzan izan zen artisau azokan mahaia jarri zuten informazioa eman eta sinadurak jasotzeko, eta «oso gustura» geratu ziren emaitzekin. Kanpainarekin jarraituz, etxeko etxe hasiko direla lanean adierazi dute. Bitartean, ohiko lekuetan sinatu ahaliko da, hau da, Torre, Gaztañaga, Landaberri, Peritza, Txoko, Musunzar, Adur, Leitzarra, Beatrizenea,

Zortziko, Ogiberri eta Zirkulon, udaletxean eta udal liburutegian, Maimur eta Astiz liburutegietan, Sarrio lantegian, eta Gazte-txean.

Maxurrenea diseinatzen

Bestalde, herenegun hasi zen Leitzako udaletxean Maxurrenea diseinatzeko parte hartze prozesua. Udalak bere behin behineko proiektua aurkeztu zuen, eta herritarren iritzia jaso ahal izan zuten. 20 lagun inguruk parte hartu zuten bileran, «giro onean eta ilusio handiarekin», eta ordu bete luze Maxurrenea eraikinarekin historiaren inguruan, herriko beharrei buruz eta proiektuaren egokitasunaz jardun zuten. Bileraren bidez ezezik, leitzarrek aukera izango dute euren iritzia etxetara banatutako orrietan emateko.

Irudia ◉ Bedaio**BEDAIOKO MARTXAREKIN «GUSTURA»**

Eguraldiaren eraginez gogorra izan zen igandean Bedaio-ko Artubi kultur elkarteak antolatutako Mendi martxa. Dena den, antolatzaileak «oso gustura» geratu dira jendeak emandako erantzunagatik. Iker Mujika andoaindarra, Imanol Ugalde

alkizarra eta Mattin Jauregi bedaioarra izan ziren lehen hirurak, lau orduren azpitik sartu zirelarik. Artubi elkartetik eskerrak eman dizkiete partehartzaile guztiei, eta prestaketa lanetan lagundu duten guztiei. HITZA

Hilberriak eta urteurrenak

-Esker onak-
Jose Apalategi Arratibel

2013ko ekainaren 15ean hil zen, Ataunen.

Familia-erantzule, eskerrak asko doluminak eman eta momentu latz hauetan lagundu diguzuen guztiei.

ATXAN, 2013ko ekainaren 5ean



- XV. URTEURRENA -

INA ZEBERIO

(1998ko ekainaren 5ean eraila)

Mugak haustea izan zenuen helburu. Zure bihotz zabalean milaka pertsonak aurkitu dute aterpe.

Etxekoak

Eskerrak etxekoan partetik, ekitaldietara agertutako guztiei.
Lizartzan, 2013ko ekainaren 5ean



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO BERTSOLARIAK

Gipuzkoako eskolarteko bertsolaritzaren festa handia ospatu zen pasa den ostiralean Tolosako Leidor aretoan. XXXIII. edizioa bete du aurtien Gipuzkoako eskolarteko txapelketak. Ohi bezala, hamalau urte artekoak igo ziren lehenbizi oholtzara. Saio ederra eskaini zuten denek, eta Mikel Iturriotz eta Zarauzko taldea izan dira aurtengo Gipuzkoako txapeladunak bertsotan. HITZA

Agurrak



Urte askoan!

Katalina Carrera eta bere semeai, zorionak familiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Olarreaga I. Korreo kalea 2. 943 67 01 28. Gauekoa: Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

- **Amezket.** Ingurumenaren eguna dela eta, Villabona, Anoeta, Irura eta Zizurkilgo eskolako ikasleak elkartuko dira, Villabona-nako plazan. 10:45etik 11:00etara erakusketak ikusteko aukera izango da. 11:00etan komunikatua irakurriko dute.
- **Amezket.** Amezketa Fest batzordeak San Bartolome jaia antolatzen bilerak egingo du, 20:30ean. Balio anitzeko gelan elkartuko dira.
- **Larraul.** Tolosaldeko Mankomunitatearen Birziklapen Bira Larraulen izango da. 19:00etan, hitzaldi tailerra izango da.

- **Gaztelu.** Ekainaren 21ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldia izango da Gazteluko jolastokiaren alde. Sarrerak salgai jarri dituzte 6 euroren truke: Tolosako Orbelan, Ibarra Sendi Ekitan, Alegiako Route 33n eta Gazteluko udaletxean.
- **Tolosa.** Izaskun auzoko festak antolatzeko bilera egingo dute 19:00etan, Otsabi lokalean. Urtero bezala, iraileko lehen aste-buruan izango dira jaia, eta herriaren parte hartzea nahi dute antolatzen hasteko.
- **Tolosa.** Emakumeen Mundu Martxako Tolosaldeko Plataformak deituta, 19:00etan, elkarretaratzea, Trianguloa plazan.

Mauka berria

Aukeratu logela bikoitza edo apartamentua!

Lamañe Etxeberri nekazarismoa
Goiko auzoa, Bergara 20570 (GIPUZKOA)
Tel.: 943763508 / 657195362
maitearis7@gmail.com
http://www.nekatur.net/lamaino

Prezioa 50€ logela

Prezioa 60€ apartamentua

www.mauka.eu

berria taldea



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Sarasola Sagardotegia Bi lagunentzako bazkia

Asteasu • Tel.: 943 69 02 83

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 Txindokiko itzala Bi lagunentzako bina sarrera

Larraitx • Abaltzisketa
Tel.: 943-10 43 67 / 628-94 72 53

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 Eureka zientzia museoa Bi lagunentzako bina sarrera

Mikeletegi pasealekua, 43-45
Tel.: 943 01 24 78
www.eurekamuseoa.es

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

